

Martutene bizi dadin

Martutene Zentrotik hurrun dagoen auzoa da eta behar bada donostiarrok ez dugu batere ezagutzen. Hala ere, arazoak dira hemen ere.

Martutenek, ekipamendu mailan kultur Etxe bat behar du auzoko dinamika kultural bat garatzeko. Bestetik ere, anbulatorioa

Martutenen bertan egon beharko litzateke.

Kirol gune bat ere faltan du aspalditik eta hurrengo urte hauetan horren bila ibiliko gara .

Hala ere, auzo honek maiztasun handiarekin jasaten duen ezbeharrak uholdeen arazoa da. Horregatik, eskatzen dugu hori konpontzea lehen bait lehen, baina hori bai, gaur egungo ibai ertzearen balore naturala errespetatuz.

Lau Haizeta Martutenekin

muga egiten du eta auzotarrok gune berde hau defendatu beharrean gaude, bere osotasunean, planteatu diren eraso txikitzaileak baztertuz.

Zoritxarrez, gure auzoaren kontra izugarritzko erasoak prestatzen ari omen dira. Entzuna daukagu intzineradora bat jarri nahi digutela . Horren aurrean, guk zabor bilketa selektiboa bultzatuko dugu irtenbide arrazional eta egokiena delako.